

aek

22.korrika

HITZEKIN HITZEKIN

Amurriotik Donostiara

2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

AIARALDEA - KOMUNIKABIDE FAKTORIA

www.aiaraldea.eus

35 urtez azpiko ARABARREN ia %80k EUSKARAZ ulertzen du



USTE BAINO GEHIAGOREKIN HITZ EGIN DEZAKEGU EUSKARAZ

araba álava
foru aldundia diputación foral

EUSKARABA
ARABAKO EUSKARA ZERBITZUAK

Sarean

Milaka lagunek egingo dute bat euskararen alde martxoaren 31tik apirilaren 10era, 22. Korrika medio. Aurrez, Korrika kulturala zein nazioarteko Korrika ekimenak izango dira. Guzti horien berri non eta nola jaso jakin nahi? Jarraitu zuzenean #22Korrika #Hitzekin bidean zein sarean barrena!

WEBGUNEA: KORRIKA.EUS
Korrikako lekukoen argazkiak, bideoak eta kronikak sareratuko dituzte egunero www.korrika.eus webgunean.

INSTAGRAM ETA TWITTER:
Zuzeneko kontaketa jarraitu nahi? Ikusi egunka, txio, sarrera eta irudi bildumak sare sozialetan!
Instagram: @Aek.eus / Twitter: @aek_eus

FACEBOOK ETA YOUTUBE: AEK
AEK-ko kideek martxoaren 31tik apirilaren 10era sare sozialetan zabalduko dituzte bideo eta unerik gogoangarrienak! Gozatu eta partekatu!

Botaldia: 12.000
Ekoizpena: Izar Mendiguren Cosgaya, Maialen Ginea Aginako, Iera Garaio Ibarrondo eta Eider Garcia Gomez
Argazkiak: AEK (Flickr) eta Iñaki Ibarluzea Ortueta
Argitaratzailea: Aiaraldea Kooperatiba Elkartea
Lege gordailua: BI-1230-2013

Babesleak:
Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
aek
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Asier Amondo Gorostizaga

ASIER AMONDO GOROSTIZAGA DA KORRIKAKO ARDURADUNA. URTEAK DARAMATZA BOZERAMAILE IZATEN. AURTENGO KORRIKAREN HELBURU, ERRONKA ETA ESPERANTZAK AZALDU DITU.

Udaberriak bete-betean harrapatu du Korrika. Zerbaiten adierazle ote?
Gabonen ostean beti dator aldapa, baina oso pozik eta gustura gaude. Ez diogu asko begiratzen eguraldiari, martxoaren 31tik aurrerako erronkari baizik. Berezia izango da arlo guztietan.

22. Korrikak Amurrio izango du abiapuntu. Zer dakar edizio berriak berezitik?
22.a azken tantoa da guretzat. Euskarak aurrera egin dezan Amurrion eta kalean egon beharko dugu.

Zer pauso eman nahi ditu AEK-k, Korrikaren bidez?
21. edizioan Bastidan euskararen aldeko konpromisoak eta pausoak aldarrikatu genituen. Oraingo honetan, 'Hitzekin' lemapean, hitza eta ekintza batu nahi ditugu. Hitzek eta komunitateak egiten dute hizkuntza. Ekintzak, aldiz, euskara onbidean jartzeko behar ditugu; bakoitza bere erritmoan, baina guztiok batera eta norabide berean.

Hizkuntza baten alde dagoen ekimen jendetsuena eta bereziena da mundu mailan Korrika. Zuretzat zer da?
Niretzat dena da: emozio asko ditu, zirrara da... Korrika plazak eta errepideak hartzea da, eta zalantza gabe, hizkuntza gutxituen alde egiten den ekimenik handiena mundu mailan. Munduak hortik ere ikasi du: Korrika ahizpak ditugu Bretainian, Alsazian, Irlandan edo Galesen, esaterako. Korrika mundura atera dugun ekimena da, eta euskararen alde ez ezik beste herrialdeetako hizkuntza propioen alde egiten ditu urratsak.

11 egunez, hamaika pauso ematekoak zarete. Hainbat proiektu aurkeztu dituzue jada, ezta?
Azaroan aurkeztu genuen 22. Korrika; Pirritx, Porrotx eta

“

‘Hitzekin’ lemapean hitza eta ekintza batu nahi ditugu. Bakoitza bere erritmoan, baina norabide berean

Korrikak euskararekiko ilusio eta gogoa pizatea gustatuko litzaidake, euskara berriro guztion gogotan eta ahotan egon dadin

HITZEKIN
euskarara hurbildu
euskara ezagutu
euskara ikasi
euskara gozatu
euskara maitatu
euskara praktikatu
euskaraz hitz egin
aresketa ikastola
www.aresketaikastola.eus
Aresketa auzoa, 2 - 01470 Amurrio
ARABA
Aresketa Ikastola

1/6	KUTXABANK KREDITU ERAKUNDEEN GORDAILUAK BERMATZEKO FUNTSARI ATXIKITA DAGO. FUNTS HORI URRIAREN 14KO 16/2011 ERREGE DEKRETUAN AURREIKUSITA DAGO. FUNTS HORREK GAUR EGUN GEHIENEZ 100.000 EURO BERMATZEN DITU GORDAILUGILE BAKOITZEKO.
ZENBAKI HAU PRODUKTUAREN ARRISKUAREN ADIERAZLEA DA: 1/6 ZENBAKIAK ARRISKU TXIKIAGOA ADIERATZEN DU, ETA 6/6 ZENBAKIAK, BERRIZ, HANDIAGOA.	

PLAN GAZTEDI PLANA

2022ko UDABERRIA • UDA

Udalekuak | Atzerriko hizkuntza-ikastaroak | Euskara eta ingeles kanpusak | Barnetegia | Zientzia | Artea | Surf-a, big sub-a, saskibaloia, futbola, bela, hainbat kirol | Astronomia | Museoak | **Eman izena hemen:**

www.kutxabank.es

Marimotots omendu genituen gerora, eta kanta aurkeztu. Korrika kulturalaz gain, unitate didaktikoa ere plazaratu genuen. Korrika horiek guztiek ere osatzen dute. Korrikak, bestalde, jaia ere badu, baina euskararen aldeko mezua da nagusi.

Guraso eta ume askoren erreferente izan dira euskararen transmisioan Pirritx, Porrotx eta Marimotots. Horregatik saritu nahi izan ditugu

Zer dela eta omendu dituzue Pirritx, Porrotx eta Marimotots?
34 urte daramatzate Euskal Herrian ekimenak, ekintzak eta ikuskizunak euskaraz prestatzen. Garrantzitsua da euskaraz horrenbeste denbora bizirautea sortzaile eta ekintzaile izanik, eta ibilbide hori ere saritu nahi genuen. Guraso eta ume askoren erreferente izan dira euskararen transmisioan, eta horregatik omendu ditugu. Azken finean, euskaraz arituko diren belaunaldiak behar ditugu.

Urtebete atzeratu du koronabirusak Korrika. Zerbait eten du?
Bai, ez soilik Korrika. Guretzat oso traumatikoa izan zen atzeratu beharra. Pandemiak euskara zaurgarri bilakatu du: euskara plazatik, errepidetik eta kaletik atera du; eta jende askori euskaraz bizitzeko aukera kendu dio. Guzti hori berreskuratzeko sasoia da. Horregatik Korrika handia izango delakoan gaude, jendea gogotsu baitago. Korrikak euskararekiko ilusio eta gogoa piztea gustatuko litzaidake, euskara berriro guztion gogotan eta ahotan egon dadin. AEK-ren mezua argia da: mundu guztiaren eskutan jarri behar dugu euskara. Gure hizkuntzak beste hizkuntzekin berdintasunean jokatu behar du: baliabide, tresna eta aukera berberak behar dira.

OMENDUAK

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

EUSKARAREN TRANSMISIOAN EGINIKO LANAGATIK OMENDU DITU 22.KORRIKAK PIRRITX (AIORA ZULAIKA SOROA), PORROTX (JOSE MARI AGIRRETXE KEREXETA) ETA MARIMOTOTS (MERTXE RODRIGEZ SERRANO). KORRIKA ETA EUSKARA ZENBATERAINO DIREN ALTXOR AZALDU DUTE.

Nola iritsi dira honaino Pirritx, Porrotx eta Marimotots?

Lasartearrak gara gu, baina bakoitzaren istorioa desberdina da. Mertxe Extremaduratik Euskal Herrira etorritako familiaren parte da, Jose Mariren familia Erreziletik Lasartera joan zen bizitzera, eta Aiora lasartearra izan da beti. Gure gurasoek Michelin fabrikan egiten zuten lan, eta gurpil horrek batu gintuen; sudur gorriak, gaur arte.

22. Korrikak omenduko zaituzte. Nola jaso zenuten berria?

Duela urtebete esan ziguten, eta izugarria izan da. Nork esango zigun guri duela 35 urte, bide honetan hasi ginenean; edo duela 40 urte inguru AEKn ikasten hasi ginenean, gerora AEK-k omenduko gintuela? 35 urtez egindakoagatik omendu gaituzte, baina Euskal Herrian guk bezala pertsona eta eragile askok merezi dute omenaldia. Gu ekosis-

tema honen parte gara, baina omenaldi hau denona dela sentitzen dugu.

1987an hasi ginen pailazogintzan, Lasarteko gehienek A ereduan ikasten baitzuten (ez zuten euskararik ia eskolan, etxean eta kalean). Horregatik jaio ginen gu: haur eta familientzat euskaraz eta alaitasunez eskaintza egiteko; hargatik jarri genuen sudur gorria. Berehala ohartu ginen umeentzat erreferente ginela; gure abestiak segituan barneratzen zituztelako. Eta, horrela gehitu genion proiektuari hirugarren zutabea: balioena (bioaniztasuna, naturaren balorea, munduari egiten diogun mina, nola zaindu natura gure burua zaindu nahi badugu, hezkidetza, askatasuna, berdintasuna, botere harremanak...). Koloretako mundua amesten dugu, Euskal Herritik sortua (horregatik landu ditugu denetariko gaiak: minbizia, heriotza, natura, expropiazioa, itsasoa plastikoz betea dagoela... gaitegiak ez du mugarik).

Korrikako omenaldiak atzera eta aurrera begira jartzen gaitu: ez da kanpaina bat, bizimodu bat da, eta gu zoriontsuak gara euskaraz bizi garelako Euskal Herriko komunitate honetan. Txikiak izanik ere, bakarka eta taldeka, eragiteko sekulako gaitasuna dugu. Horregatik izan da guretzat beti garrantzitsua elkarlana, eta horrek asko aberastu gaitu. Halakotan zoriontsu sentitzen gara, arrainak uretan bezala. Horrek ematen dio zentzua gure lanari: txikiak gara, inurriak, baina elkarrekin oso indartsuak.

Oso berezi biziko dugu Korrika: bihotza ahotik aterako zaigu. Emozioen eztanda izango da: 35 urteko bidea etorriko zaigu burura

Zer da zuentzat Korrika?

Mundua izan daitekeenaren neurria ematen digun itsasargia da Korrika guretzat. Korri-

kak garenaren dimentsioa ematen digu: oso txikiak gara, baina oso inportanteak. Korrika gisako ekimenik ez dago munduan: herri oso bat, eskuz esku lekukoa pasatzen, denak irribarretsu, kantari, urduri, saltoka... Hori non gertatzen da munduan?

Disko osoa eskaini zenioten Korrikari 2017. urtean, ikuskizuna barne.
Korrikarekin eta barneko istorioekin film luzea egin daiteke: denok ditugu begietako eta bihotzetako erretinetan iltzatuta Korrikako bizipenak. Korrikak asko eman digu, eta guk ere gure sentimenduak, aldarriak eta ekintzak eman dizkiogu; aurtengo leloak dioen bezala 'Hitzekin'.

Nola biziko duzue aurtengo Korrika?
Oso berezi. Urtero hartu izan dugu Lasarte-Orian kilometroa; gure herriko haur eta sudur gorriekin. Taupada oso berezia izan da beti Korrikan parte hartzea. Aurten 7:30ean pasako da gure herritik, eta bihotza ahotik aterako zaigu: irrintzi, kantu eta salto egingo dugu! Momentu hori partekatzea lekukoa eramango duten beste eragile guztiekin magikoa izango da. Urteak daramatzagu tximeleta horiek sabelean sentitzen. Ez gaude Korrika noiz hasiko zain, dagoeneko bizi dugu zirrara. Emozioen eztanda izango da, 35 urteko bizipenak etorriko zaizkigu burura.

AEK-k asko eman dizuela diozue.
Pirritxek euskaraz egin zituen ikasketa guztiak, Porrotxek txikitan gazteleraz ikasi zuen, eta gaztetan AEK-n eman zuen izena alfabetatzeko (euskara etxean jaso arren kale jardueran gaztelera zelako nagusi... baina unibertsitate ikasketak euskaraz egitea hautatu zuen), eta Marimok 20 urte pasata erabaki zuen euskaltegi eta barnetegi bidez euskara hutsetik ikastea (gaztaroa erdaraz eman on-

> **Mundua izan daitekeenaren neurria ematen digun itsasargia da guretzat Korrika: garenaren dimentsioa ematen du; oso txikiak gara, baina elkarrekin oso indartsuak**

> **Euskara altxorra da -baina ez lurpean gordetakoa- ahoan duguna baizik; musua bezala, eman, jaso eta partekatzekoa**

doren euskararen mundua deskubritu zuen; euskaraz amesten hasi zen arte). Hortaz, guri AEK-k asko eman digu: AEK-rekin ikasi dugu euskara Porrotxek eta Marimototsek, eta bizimodua, afizioa, ofizioa eta bizitza eman dizkigu; ezagutzen ditugun lagun guztiak; kultur erreferentziak; kokapen bat munduan... Dena eman digu euskarak, horregatik gaude eskertuta euskalgintzari eta AEK-ri.

Zuen esku balego, zer mezu luke lekukoak?
2009. urteko Korrikako mezuan, euskara altxorra zela genioten, baina ez uhartean lurpean gordetakoa. Gure ahoan duguna da, musua bezala eman, jaso eta partekatzekoa. Bakoitzak gure koloretik denon artean ostadarra osatu behar dugu, euskaratik eta euskaraz; bizi dugun mundu itsusi honi alternatiba eskaini behar diogu egunerokotasunetik eta euskaratik, balioetan oinarrituta.

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO

arberas
ferretería industrial

BIDERDI

La Terraza

URDUÑA
ORDUÑA

Alanbike
CAFÉ-BAR

ARTOMAÑA
Txakolina

AMAURRE
IKASTETXEA · BIDAIDE FUNDAZIOA
KRISTAU ESKOLA

zaraobe
institutua

KORRIKA
edizioz edizio

INFO+ AIARALDEA.EUS/BEREZIAK/KORRIKA

1. KORRIKA 1980

2. KORRIKA 1982

3. KORRIKA 1983

4. KORRIKA 1985

5. KORRIKA 1987

6. KORRIKA 1989



7. KORRIKA 1991

8. KORRIKA 1993

9. KORRIKA 1995

10. KORRIKA 1997

11. KORRIKA 1999

12. KORRIKA 2001

13. KORRIKA 2003

14. KORRIKA 2005

15. KORRIKA 2007

16. KORRIKA 2009

17. KORRIKA 2011

Euskara
ozen eta garbi
entzuteko

- Soinu paregabea
- Birkargatzen dena
- Konektagarria

LAUDIO
Batzalarrin 3, 94 404 22 86
AMURRIO
Elexondo 1, 945 89 24 22
URDUÑA
Kale Barria 7, 945 38 44 99
wwww.luyandoopticos.com
RPS: 254/14

LUYANDOPTICOS
CENTRO AUDITIVO OFICIAL WIDEX
AUDÍFONOS DE ALTA DEFINICIÓN

18. KORRIKA 2013

19. KORRIKA 2015

20. KORRIKA 2017

21. KORRIKA 2019

KORRIKA **munduan**

SAHARAN, PARISEN (FRANTZIA), BARTZELONAN (HERRIALDE KATALANAK)... EUSKARAREN LEKUA ETA GARRANTZIA MUNDURATZEN DITU KORRIKAK.

Nork uste zuen euskara Euskal Herrikoa soilik zela? Euskal Herrian ez ezik, munduan barrena hedatu da Korrika. Horren adierazle dira zenbait hiriburu eta herrialdetan antolatutako ekimenak. Bartzelonako eta Pariseko Euskal Etxeak dira horren adibide. Maider Urtaran Larisgoiti laudioarra dago, besteak beste, 22. Korrika antolatzen Bartzelonan: "Bi helburu ditugu; euskara Euskal Herritik kanpora ateratzea (Bartzelonara ekartzea) eta hizkuntza gutxituen jaia ospatzea". Egun osoko egitaraua prestatu dute, 8 kilometroko ibilbidea barne. Bartzelonako Euskal Etxearen bidez zabalduko dute egitarau osoa. "Bartzelonan beti egin da Korrika, ibilbidea ez; baina ekintzak 2003. urtetik aurrera gauzatu egin dira".

"Euskarak eta hizkuntza gutxituek duten lekua eta garrantzia aldarrikatzeko antolatu dugu Korrika Bartzelonan"

Parisen, aldiz, martxoaren 12an egin zuten ekimena. Lorea Ibañez amurrioarraren hitzetan, laugarren edizioa izango da. Euskal Etxean bukatu zuten lasterketa, lekukoaren mezu eta guzti: "Euskara mundura zabaltzeko beharrezkoa da Korrika. Parisen euskaraz hitz egiten dela aldarrikatzeko, eta euskara ikasteko aukera dagoela Euskal Etxean gogoratzeko erabiltzen dugu guk". Baimena lortzea zaie zailena, manifestaziotzat hartzen baitute: "Lehenbiziko urtean megafono bakarrarekin ibili ginen kantuan, baina gaur egun furgoneta eta musikarekin goaz". Irudia bitxia bada ere, bitxikeriak gehiago dira: "Aurrekoan poliziak espaloitik joatera behartu gintuen, eta duela 2 edizio furgoneta jendearen atzetik joan behar zela esan ziguten. Ez zuten dinamika ulertzen". Edozelan ere, munduan badira beste zenbait ekimen Korrikaren alde. AEK-ko sare sozialetan topatu daitezke horietako batzuk. Euskararen sareak mugarik ez duen adierazle.

"Harrigarria zaio jendeari Parisen horrelako ekimen edo manifestazio alai bat ikustea"



Korrika App

22. Korrika jarraitzeko AEK-k 'Korrika' aplikazioa sareratu du. Korrikari buruzko informazioa kontsulta daiteke uneoro bertan: ekimenaren kokapen zehatza (egoera), ibilbidea edota jakinarazpenak kasu. Horrez gain, lotura interesgarriak ere jaso dituzte: AEK-ren ataria (www.aek.eus), Korrikaren webgunea (www.korrika.eus) edota sare sozialak, besteak beste. Izan ere, Twitterren, Facebooken, Instagramen, Flickrren eta Telegram kanalean zabalduko dituzte egunero ekimenak utzitako irudiak eta momentuak.

Gainera, kilometro guztietako lekukoen argazkiak pilatuko dituzte furgonetako lagunek, eta egunero eguneratuko dute eduki multimedia guztia Korrika.eus webgunean.

Aplikazioa Google Play edota Play Store programen bidez deskarga daiteke telefono mugikorretan.

naiz: hamaika berria

aek 22. korrika HITZEKIN

Amurriotik Donostiara 2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

korrika.eus

MARTXOAK 31 OSTEGUNA

Amurrio	16:30
Arespalditza	17:19
Artziniega	18:15
Balmaseda	19:29
Zalla	20:18
Gueñes	21:02
Gordexola	21:36
Okondo	22:06
Laudio	22:38
Ugao	23:51

APIRILAK 1, OSTIRALA

Arrigorriaga	00:20
Basauri	01:03
Etxebarri	01:54
Galdakao	02:27
Zornotza	03:29
Iurreta	04:44
Durango	05:11
Abadiño	06:00
Elorrio	06:55
Berriz	07:40
Zaldibar	08:10
Mallabia	08:36
Ermua	08:59
Eibar	09:30
Elgoibar	10:16
Soraluze	10:55
Bergara	11:59
Arrasate	12:57
Aretxabaleta	13:43
Eskoriatza	13:56
Legutio	15:00
Urbina	16:00
Luku	16:26
Dura	16:58
Gasteiz (Bergarako atea)	17:09
Gasteiz (erdialdea)	20:13
Gasteiz (Elorriagako atea)	21:00
Arkaute	21:07
Dulantzi	22:18
Deredia	23:04
Agurain	23:49

APIRILAK 2, LARUNBATA

Zalduondo	00:39
Araia	01:20
Egino	01:52
Olazagutia	02:34
Bakaiku	03:56
Etxarri	04:24
Lakuntza	05:09
Hiriberri	06:16
Urritzola	06:57
Otxobi	07:50
Berriozar	09:03
Iruñea	09:26
Antsoain	09:47
Iruñea	09:56
Burlata	10:10
Atarrabia	10:24
Uharte	10:33
Sarriguren	10:54
Iruñea	11:15
Barañain	13:43
Zizur Nagusia	14:09
Noain	15:06
Espartza	15:48
Astrain	16:39
Uterga	17:20
Gares	18:02
Mendigorria	18:49
Artaxoa	19:43
Tafalla	20:59
Larraga	23:02

APIRILAK 3, IGANDEA

Lerin	00:34
Lodosa	02:40
Andosilla	04:22
San Adrián	04:48
Azagra	05:14
Cadreita	07:29
Corella	09:42
Cintruénigo	10:19
Tutera	11:45
Alesbes	15:44
Martzilla	16:38
Caparroso	17:29
Zarrakaztelu	19:30
Kaseda	21:53
Gabarderal	22:35
Zangoza	23:01
Ledea	23:40

APIRILAK 4, ASTELEHENA

Irunberri	00:39
Domeñu	01:18
Nabaskoze	03:07
Burgi	04:45
Erronkari	05:58
Izaba	06:37
Uztarroze	07:10
Itzaltzu	08:47
Otsagabia	09:07
Ezkarotze	09:20
Abaurregaina	10:45
Abaurrepea	11:08
Garralda	12:18
Aurizperri	13:10
Orreaga	14:02
Luzaide	15:45
D. Garazi	17:00
Lakarra	17:42
Larzabale	18:41
Donaixti	19:25
Muskildi	20:30
Maule	21:28
Sarrikotapea	22:27

APIRILAK 5, ASTEARTEA

Donapaleu	00:00
Iholdi	02:04
Ortzaize	03:11
Baigorri	03:52
Erratzu	05:55
Arizkun	06:15
Elizondo	06:47
Aniz	07:49
Berroeta	08:02
Almandoz	08:21
Arraitz	10:05
Larraintzar	10:44
Jauntsarats	11:49
Aldatz	12:48
Mugiro	13:21
Lekunberri	13:34
Irurtzun	15:29
Azantza	17:24
Genbe	18:39
Muetz	19:18
Lizarra	20:56
Iratxe	21:41
Murieta	22:45
Antzin	23:05
Acedo	23:44

APIRILAK 6, ASTEAZKENA

Kanpezu	00:40
Genevilla	01:15
Kabredo	01:32
Marañon	01:47
Bernedo	02:21
Baxauri	03:12
Albaita	04:09
Trebiñu	05:21
Argantzon	06:19
Langraiz	07:10
Izarra	09:45
Murgia	10:29
Ondategi	11:41
Zeanuri	13:20
Areatza	14:25
Igorre	15:09
Lemoa	15:38
Usansolo	16:16
Larrabetzu	16:41
Zamudio	17:35
Derio	18:01
Erandio	18:56
Bilbo (San Ignazio)	19:36
Bilbo (Zazpikaleak)	22:06
Bilbo (Zorrotza)	23:40
Barakaldo	23:51

APIRILAK 7, OSTEGUNA

Sestao	01:07
Trapagaran	01:31
Ortuella	02:00
Abanto	02:38
Muskiz	03:22
Zierbena	04:15
Santurtzi	04:52
Portugalete	05:29
Getxo (Romo)	06:24
Leioa	07:06
Getxo (Algorta)	07:26
Berango	08:19
Sopela	08:37
Urduliz	08:58
Gorliz	09:41
Gatika	10:42
Mungia	11:05
Bakio	12:21
Bermeo	13:23
Mundaka	14:20
Busturia	14:53
Gernika	15:38
Gautegiz Arteaga	16:35
Ibarrangelu	17:14
Ea	17:34
Lekeitio	18:39
Aulesti	19:33
Markina-Xemein	20:37
Berriatua	21:30
Ondarroa	22:29
Mutriku	23:20

APIRILAK 8, OSTIRALA

Deba	00:01
Zestoa	01:30
Zumaia	02:58
Getaria	03:55
Zarautz	04:26
Orio	05:21
Usurbil	06:26
Lasarte	07:11
Urnieta	08:13
Andoain	08:43
Villabona	09:55
Tolosa	10:40
Bidania	11:51
Errezil	12:23
Azpeitia	13:26
Azkoitia	14:07
Urretxu	15:49
Zumarraga	16:08
Ormaiztegi	17:00
Segura	17:46
Idiazabal	18:18
Lazkao	19:10
Beasain	19:36
Ordizia	20:09
Legorreta	21:01
Altzo	21:59
Tolosa	22:25
Ibarra	22:45
Berastegi	23:43

APIRILAK 9, LARUNBATA

Leitza	00:35
Ezkurra	01:53
Zubieta	02:54
Doneztebe	03:40
Sunbilla	04:06
Igantzi	05:07
Lesaka	05:40
Bera	06:17
Urruña	07:11
Azkaine	07:44
Senpere	08:23
Sara	09:34
Zugarramurdi	10:40
Ainhoa	11:21
Ezpeleta	11:54
Itsasu	12:27
Kanbo	12:51
Hazparne	13:46
Haltsu	15: 21
Uztaritze	15:48
Milafranga	16:33
Hiriburu	16:59
Baiona	17:28
Angelu	19:43
Biarritz	20:16
Bidarte	21:34
Getaria	22:07
D. Lohizune	22:20
Ziburu	23:10
Urruña	23:41

APIRILAK 10, IGANDEA

Hendaia	00:14
Irun	00:53
Hondarribia	01:39
Irun	02:21
Oiartzun	03:09
Errenteria	03:44
Lezo	04:03
Pasaia	04:32
Astigarraga	06:19
Hernani	06:49
Donostia (Añorga)	07:36
Donostia (Parte zaharra)	09:05
Donostia (amaiera)	12:30

araba álava foru aldundia diputación foral

Maquelsa INPRIMATZE SOLUZIOAK www.maquelsa.com

oreka i.t. corporate balance

Lekuko(tz)ak

ZER DA ZURETZAT KORRIKA? ZER ERAGITEN DIZU EUSKARAREN ALDEKO EKIMENAK? AEK-REN EKIMENA ABIAPUNTU, AIARALDEKO ZEIN EUSKAL HERRIKO ZENBAIT LAGUNEN LEKUKOTZAK JASO DITUGU.

MIREN AMURIZA PLAZA
BERTSOLARIA ETA IDAZLEA

Emozio bilduma eder eta batez ere alaia da Korrika niretzat. Bi berba datozkit burura: pizgarria eta zirrara

Emozio bilduma eder eta batez ere alaia da. Irudi pila etortzen zaizkit burura. Ez nuke jakingo bakoitzaren urtea: guztiak Korrika bakar balira lez imajinatzen ditut, umezaroan hasi eta hamarkadaz hamarkada zeharkatu gaituztenak, eta geuk ere bide bat egin duguna eurekin. Korrikak zer eragiten didan? Bi berba datozkit burura: pizgarria eta zirrara. Aurten inoiz baino gehiago eskertuko dugu elkarrekin egon, egin eta ospatzeko aukera hori.

YOGURINHA BOROVA
MUSIKARIA

Euskara bultzatzeko ideiarik onena. Izan ere, MUGIMENDIAREKIN, kasu honetan korrika egiten, ideiak eta aldarrikapenak zabaltzen dira. Niri desio eta ilusio asko sortzen dit: sekulakoa da jendearen arnasa entzun eta gure indarrarekin euskara bultzatzea! Lekukoaren barruan zein mezu sartuko nukeen? Euskara erabiltzeko orain eta beti da momentua: parte hartu, euskeraz aritu, egin KORRIKA!

MIKEL AYLLON CORRAL
IDAZLEA

Poza ematen didate Korrikaren etorrerak, jendearen ilusioak eta kemenak. Zorionekoak gara halako ekimen miragarri bat daukagulako

Korrika mirari moduko bat da. Saia zaitez ezagutzen ez duen norbaiti azaltzen zer den: zoratuta zaudela pentsatuko du, baina ikustekotan seko maiteminduko da. Patrikan gorde eta bere etxera eramaten ahaleginduko da. Zorionekoak gara halako ekimen miragarri bat daukagulako. Poza ematen didate Korrikaren etorrerak, jendearen ilusioak, herritarren kemenak. Hala ere, Korrika datorren bakoitzean indar biziz desio dut azkena izatea, haren beharrik ez izatea gehiago. Gure herria ezeren beldurrik gabe pauso sosegatuz ibiliko den egunarekin amets egiten dut.

GENTZANE ALDAY CALONGE
PILOTARIA

Euskaldunon altxor baliotsuena lehen lerrora ekartzeko momentua da Korrika, herri aldarri paregabea

Bi urterik behin euskal herritarrak batzen dituen ekitaldirik garrantzitsuenetariko da niretzako, euskararen aldeko jarrera aktiboa demostratzeko aukera aproposa, euskaldunon altxor baliotsuena lehen lerrora ekartzeko momentua, herri aldarri paregabea. Alde batetik ilusioa, poza eta harrotasuna eragiten dit Korrikak, euskarak duen indarra azaleratzen delako. Eta, bestetik, kontzientzia piztea eta batzuetan egiten dugun erabilera eskasaren erreflexioa egitea.

EDURNE AZKARATE SOBRINO
AKTOREA

Herri gisa euskararen aldeko ekimenik potente eta konstanteena da. Oso positiboa, ez delako ezeren aurka, gure alde baizik

Herri gisa euskararen aldeko ekimenik potente eta konstanteena da Korrika. Oso positiboa zait ez delako ezeren aurka, gure (eta gure hizkuntzaren) alde baizik. Euskaldun izateko mota desberdinak barnebiltzen ditu, gainera: periferiatik erdigunera, eta alderantziz. Asko gustatzen zait imajinatzea konstanteki mugimenduan etengabe dabilen korrikalari talde aldakorra, baita lekukoaren mezua zenbat leku eta eskutatik pasako den pentsatzea ere. Emozioa da Korrika, baita lekukoaren mezua ere.

LAUDIO
COMERCIO Y OCIO

Amurrioko
Batzoki berria

arrate
gestoria • aholkularitza • aseguruak

El Rinconcito

BYRYTXAGA
INDUSTRIAS CÁRNICAS

Izan
AMURRIO

ENKARKI
ALQUILAMOS SOLUCIONES VENDEMOS SERVICIO

Goxe Berri
Fruituak eta Barazkiak

hitz
zentroa

Orozkoko Udala

TXOTIS
AZUL - ARRIBA

Arrankudiaga-Zolloko
Udala

‘Hitzekin’ iruditan

Aiaraldea Komunikabideak martxoaren 31ko hasiera jaiaren zuzeneko jarraipena egingo du. Ohi gisa, aiaraldea. eus webgunean egongo dira eskura eguneko argazki kronikak, eta Aiaraldeko Korrikako argazki zein bideo erreportajeak. Horrez gain. webgune berezian (www.aiaraldea.eus/bereziak/korrika) Korrikako edizio zaharretako bilduma eta artxibo zabala izango dituzue eskura, noiznahi eta nonahi euskara eta Korrika zabaltzen jarrai dezazuen.

Aldizkari hau 22. Korrikari bultzada emateko Aiaraldea Komunikabideak ekoitzia da, AEK eta Arabako Foru Aldundiaren babesarekin. Eskerrik asko irakurle, ikus-entzule, eta Aiaraldea Ekintzen Faktoriako bazkide zareten guztiei, eskualdearen zein euskararen bizimodua denon eskutik denon eskura jartzearren.

#KorrikaAiaraldean

Argazki Lehiaketa

Parte hartzeko:

Bidali apirilak 10 baino lehen argazkia(k), egilearen izen-abizenak, kontakturako telefonoa eta herria postaz erredakzioa@aiaraldea.eus helbidera, edo telefonoz 688848152 zenbakira.

Saria:

Atxubi tabernan 4 lagunentzat afaria

(100 euroan zenbatetsitako eskaintza gehienez)

Irabazlea:

aiaraldea.eus webgunean erabakiko da, boto sistema bidez.

Bozketa fasea

Apirilak 11-17 (apirilaren 18an jakinaraziko da irudi garailea)

Korrikaren jarraipen berezia:

aiaraldea.eus/bereziak/korrika

ATXUBI desde 1983

AIARALDEA - KOMUNIKABIDE FAKTORIA

www.aiaraldea.eus